

JAZARPEN ISTORIO BAT

«Subnormal» komikitik pantaila handira doa Iñaki Zubizarretaren «infernu» hura

Hamaika urte zituen su-fritzeari uzteko bere buruaz beste egiteko zorian egoterraino heldu zenean. Mutil handia zen. Ezaugarri fisiko hura edo beste edozein izan zitekeen beraren kontra joateko aitzakia. Klasean hasi zen dena. Ikaskide batzuen erasoen jopuntu bihurtu zen, eta are larriagoa, irakaslearen babesa jaso beharrean haren mespretxua ere jasan zuen, infernua biribilitzeko.

Orduko zaurien markak badiu oraindik Iñaki Zubizarreta helduak, baina itxita daude. Amorrua baztertuta, ikuspuntu positibo eta erakitzaile batetik eskola jazarpena pairatzen duten haur eta gazteei laguntzen saia-

 **JENDARTEA** / Nerea Goti

Ezaguna da saskibaloiairen munduan izan zuen ibilbideagatik eta ez dio bullyingaren aurkako borrokaren ligan jokatzeari uzten. Ez da erraza izan baina 11 urterekin bizi izan zuena kontatu du «Subnormal» komikian. Orain, pantaila handira eraman nahi du istorioa helburu batekin: «Umeen gauzak direla esateari uztea».

tzea bizitza helburu bilakatu da berarentzat. Bide horretan «Subnormal» komikia sortu du Panini argitaletxearekin. Fernando Llorrek gidoia egin du eta Miguel Portok istorioa marraztu du.

Saskibaloiz jokalaria profesionala izan zenak haurtzaroren bukaeran bizi izan zuen istorio gordina kontatzen du ber-

tan, eta orain pantaila handira jauzi egiteko bidean dago.

Komikia pasa den abuztuan argitaratu zen, baina eskola jazarpenaren aurkako hamaika ekimenetan sartuta, agenda topera dauka oraindik Zubizarretak. Ahots indartsuko gizontzarrak entzun zezakeen onena entzuten du azken boladan, «Subnormal» izeneko ko-

Iñaki Zubizarreta, saskibaloiz jokalaria ohia eta «Subnormal» komikiaren istorioaren protagonista.

Oskar MATXIN | FOKU

miki hori sekulako laguntza ematen ari zaie psikologo eta psikiatrei. GAUR8ri kontatu dionez, jasotzen dituen mezu guztietan zoriondu egiten dute, eta eskerrak eman ere bai, lana beste batzuei laguntzeko oso baliagarria delako.


EGIAZKO PASADIZOAK

«Sekulako ibilbidea izaten ari da; hezkuntzan eta medikuntzan erabiltzen ari den erreminta sortu dugu», esan digu ikasgelan hainbestetan entzun behar izan zuen iraina bera lerroburu hartu duen komikiaz.

Bineta horiek den-dena kontatzen dutela azaldu du. Egiazkoak dira jasota geratu diren umiliazioak eta jipoiak, baita amildegira salto egiteko zorian egon zela kontatzen duen pasartea ere. «Nire bizitzako gertaerak dira eta komikiak transmititzen duen guztia egiazkoa da, erabat, oso fikzio gutxi dago. Hartu dugun lizentzia bakarra sare sozialen ingurukoa izan da: nire garaian ez zeuden baina beharrezkoa zen egungo gazteen munduarekin konektatzeko».

Iraganaren zati horretara begiratuta, Zubizarretak argitu digu «astakeria guztien» lehen lerroko protagonistak ez zirela izan bere gelakideak, nagusiagoak ziren mutilak eta tutorea baino. «Eraso fisikoak, irainak, mehatxuak, umiliazioak... eta irakaslearekin, kanporatze batekin taldetik erabat urrundu ninduen», dio eta bere ahotsean beste tonu bat sumatzen da.

Irakasle horren aldetik «etengabeko umiliazioak» baino ez zituela jasotzen gogoratzen du. Azterketa bat gainditzen ez zuen bakoitzean, gutxiegia ikaskide guztiei banan-banan erakusten zien. Irakasle hark ez zion Iñaki ize-



**Hamaika urte zituela ikastetxean ezagutu zuen
infernua ez zuten ikaskide nagusiagoek
bakarrik eragin, irakasle baten umiliazioak ere
jasan behar izan zituen**

narekin deitzen, erasotzaileek erabiltzen zuten ezizen bera erabiltzen zuten. «Ez daukat as- tirik ergel bati erantzuteko»,

**Sufrimenduak eta isiltasunak muturreko
egoera batera eramane zuten mutil hura, eta
horren ondorioak ez dira urteekin bukatzen**

esaten ziola gogoratzen du. «Ikasturte osoan zehar jolas- tokira irten gabe zigortu nin- duen, baztertu egin ninduen, isolatu egin ninduen. Hor hasi ziren isiluneak, eta benetan esaten dizut egoera hori heldu batentzat gestionatzea zaila

ISILTASUNA ETA SARE
SOZIALEN ANPLIFIKAZIOA

Jazarpen kasuetan laguntza lortzeko, gertatzen ari den hori kontatzea da gakoa, baina biktimentzat bizitzen ari diren sufrimendu hori azaltzea ez da beti erraza. Beldurraren aurpegi guztiek isilarazten dute egoera, eta teknologia berriek ez dute laguntzen, erasoan dibertsifikazioa eta anplifikazioa ahalbidetzen baitituzte.

EH Kids Online nazioarteko ikerketa taldeko partaideak diren Maialen Garmendia eta Carmelo Garitaonaindia EHUKo ikertzaileek ohartarazi dute gaiaren inguruan, biktima gehienek ez dietela helduei kontatzen, ez gurasoei ez irakasleei. Otsailaren bukaeran argitaratutako artikulu batean jakinarazi zutenez, 2018ko inkesta baten arabera, estatu espainoleko adin txikikoen %70ek erantzun zuten esperientzia negatiboren bat izanez gero lagunen batekin hitz egiten zutela, %46k aitarekin edo amarekin eta %11k irakaslearekin egiten zuten bakarrik.

«Etxeetan askotan adin txikikoen isiltasuna da nagusi, ez dute jazarpena kontatzen gurasoek Internet kenduko dietela pentsatzen dutelako», salatuz gero erasotzaileen ankerkeria areagotuko dutela uste dutelako edo esateak ezertarako balioko ez duela uste dutelako.

Ikertzaileen esanetan, online eta aurrez aurre gertatzen diren jazarpenak lotuta daude sarritan. «Kasu askotan, ziberjazarpena aurrez aurre hasi den jazarpenaren jarraipena da, eskolan gehienetan». Zer gertatzen da ziberjazarpenarekin? Sare sozialek duten anplifikazio ahalmen handiarekin biktimaren babesgabetasuna eta kalteak areagotzen dituztela.

Garmendiaren eta Garitaonaindiaren analisiak erasotzaileen errealtateari ere begiratzen dio. Aipatzen dutenez, hainbat ikerketak baieztatzen dute jazarleak ez direla askotan erasoan ondorio larriez jabetzen. Ehuneko handi batean, «ondo pasatzeko» baino ez dute egiten, jolas moduko zerbaite balitz bezala, dituen ondorio larriez konturatu gabe. Beste askok biktima gorrotatzen dutela onartzen dute, zehaztutakoaren arabera.

Halere, EHUKo bi ikertzaileek diote seme-alabek online dituzten arriskuei eta kalteei buruz gurasoek duten pertzepzioak errealtatea gutxiesten duela. 2019ko ikerketa baten datuak aipatzen dituzte, 9 eta 17 urte bitarteko hiru gaztetik bat «aurreko 12 hiletan offline edo online jazarpen gertaeren biktima» izan zela adierazten baitzuen. Erdiek esan zuten erasoak telefono eta Internet bidez izan zirela, gogoratu dute arazoaren neurriaz ohartarazteko.



«Subnormal» komikiaren sekuentzia bat, irudian. Panini Comics



bada, ume baten kasuan horrek deuseztatu egiten zaituela», kontatu du Zubizarretak.

Eskolan gauzak horrela zeuden bitartean, etxean egoera ez zen erraza, une gogor batek pasatzen ari zen familia. Urte batzuk lehenago, egun berean anaia bi hil zitzaizkien. Inakik kontatzen du hiru urte gazteago zen anaia bizitzarekin zuen lotura handienetako bat bilakatu zela, baina etxeko minari ez zion bere mina gehitu nahi izan. «Ez nituen gurasoak kezkatu nahi, nire errua gauzak isilpean gordetzea izan zen», gogora ekarri du. «Isilik egote horiek hilgarriak izan daitezke».

Honakoa azaldu du: «Desesperazioa da. Pertsona batek bere buruaz beste egin nahi izatearen arrazoia ez da ez duela bizi nahi, baizik eta itzelezko emozio zama duela eta sufritzeari utzi nahi diola».

Komikia egiteko, gordeta zituena oroitzapen guztiak berreskuratu behar izan ditu eta

ariketa horretan sufrimendua itzalak itzuli dira Zubizarreta helduarengana. Gidoilariarekin egindako lana lazgarria izan zela dio, ez zekielako «osatuta ez zeuden zauri batzuk» bazeudela. Gogoratzean, berriz zabaldu eta hondoa ere ukitu zuela onartzen du.

Hala ere, komikian lan egiteak balio izan dio «benetan non eta nola» zegoen jakiteko. Nabarmentzen du laguntza handia izan duela, atzean daukan lagun talde handiari zor dio indar dosi eskerga. «Ez naute jausten utzi», azpimarratu du.

Komikia egiteko, egun haietako pasadizo guztiak gidoilariaren eta marrazkilariaren eskuetan utzi zituen, eta gogoratzean zauri batzuk berragertu ziren

Zubizarretak dioenez, bizitza osoan eramaten da motxila hori, baina emozioen kontrolean ere trebatu beharra dago, minak eta amorruak hondatzen duten gatazkak eragiten dituztelako

Eskola jazarpenaren prebentzioan eta laguntzan aritzen den Inaki Zubizarreta, komikia irakurtzen.
Oskar MATXIN | FOKU

«Egun esan dezaket komiki hori bizitzaren oparia izan dela eta terapia bat, barruan neukan ume lur joarekin konektatzeko aukera izan dut eta lan gogorra izan da», adierazi dio GAUR8ri.

Emozioen lanketa ez da erraza, eta ideiak eta sentimenduak antolatu, emozioen kontrolean trebatu eta egoera ezberdinei aurre egiteko nola baiteko entrenamendua jarraitu behar izan du. Barruko haur mindu hori ez da desagertzen baina zentzua eman behar zaio horri guztiari aurrera jarraitzeko, eta plano horretan argi azaltzen du amorrua eta pentsamendu negatiboak baztertzen ikasi behar dela.

«Pentsamendu horiek guztiak zure kontra itzultzen dira. Hor daukazu haurra galtzen ari zara. Haurrak argizko izakiak dira eta maitasuna eman behar zaie, ez zentzu ‘pasteloso’ batean, baizik eta maitasunarekin, konexio heldu baten ikuspuntutik, non berreskuratu behar den lehenengo gauza norberaren buruzaletasuna den», azaldu du.

ILUSIOA LAPURTZEN DIZUTE

Garrantzi handia ematen dio Zubizarretak gatazken kudeaketari. «Hori da kudeatzen ikasi dudana beste gauza bat, eta izaera nabarmen leundu dut. Ikusi dut gatazkekin ez dudala ezer lortu, istorio txarrak baino ez ditut lortu eta ikusi dut ezin diodala boterea eman nire onetik ateratzen nauen pertsonari, bestela kontrolatzen eta menderatzen zaituzte», ohartarazi du.

Ez dago datu askorik pandemiaren eragindako egoera berriak eskola jazarpen kasuetan izan ditzakeen inpaktuen gainean, baina osasun emozionalaren inguruko kezka gero eta handiagoa da. Hainbat era-

kundek eta elkartek antsietate eta depresio kasuen olatu handia espero dute krisialdiaren eraginez eta alarma egoeraren mugen eta isolamenduaren ondorioz.

Zubizarretak ez daki zehatz-mehatz zein eratan laguntzen duen komikiak, baina uste du lagun dezakeela barruan gordeta dagoen hori azalarazten, biktimen isolamendurako joera eta jasandakoak kontatzeko dituzten zailtasunak ikusita. «Jazarleek biktimei egiten dieten lehenengo gauza da barruko lengoia lapurtzea; komunikatzeko gaitasun hori kentzen dizute beldurra sortuz, ziurtasunik eza areagotuz, ilusioa lapurtuz eta, batzuetan, bizitzeko gogoak ere kenduz», azpimarratu du.

Saskibaloi jokalaria ohiak dioenez, bullying kasuetan erasotzaileak eta jazarle pasiboak daude, jazarpenaren lekukoak izanik gelditzeko ezer egiten ez dutenak. Bere usteetan, komikian oso ondo islatuta dago horien jokabidea. «Oso era esplizituan eta eragingarrian erakusten da zer den eskola jazarpena eta agian balio izango du haurren kontuak direla esateari uzteko, ondorioak bizitza osoan ordaintzen direlako, motxila bat daukazu».

Psikologian eta psikiatrian terapia grafikoan erabiltzen ari dira “Subnormal” komikia, baita hezkuntza munduan ere.

Behin baino gehiagotan onartu du saskibaloian aritzea funtsezkoa izan zela aurrera egiteko. Kirolak «bizitza salbatu» ziola adierazi zuen duela urtebete GARAK egindako elkarrizketa batean. Orduan nabarmendu zuen jokabide positibo batekin eraikitzen direla gauzak eta jarraitzen du pentsatzen hitzen botere berezian. Emozioen kudeaketaren ikus-

Komikitik pantaila handira jauzi egingo du Zubizarretaren istorioak, titulu bera izango duen filmarekin. Unitate didaktikoak eta gida didaktiko bat ere lantzen ari da

«Subnormal» komikia Panini Comics-ek argitaratu du, Iñaki Zubizarreta saskibaloi jokariaren istorioan oinarrituta. PANINI COMICS

Filma ez da soilik haurtzaroko bizipenetara mugatuko, helduaren ondorioak ere jorratuko ditu, minak «munstro bilakatu ahal zaituelako, nire kasuan izan zen modura»

puntutik eta barruko zauriak osatzeari begira, «gauza positiboak eraikitzeke dugun tresna da hitza, eta ondoan dauzlagunak indartzeko».

Botere hori praktikan jar-tzen du gazte askorekin. Azken urteetan ez dio utzi hitzaldiak eskaintzeari. Masajeak ematen dituen kontsultan egiten duen lanaz aparte etengabeak dira gazteak laguntzeko mezuak. «Mezu pila bat daukat, herrialdekoak eta kanpokoak eta oso urrun ez bada denbora hartu eta haiekin edo familiekin egotera joaten naiz, eta bestela era telematikoa egiten dugu: ez naizela paperezko pertsonaia bat erakutsi nahi dut, ez ditut promesak bakarrik ematen», kontatu du horrenbeste betetzen duen arlo horretaz.

Bepro fundazioarekin lan egiten du, kirolariei emozioen kudeaketan laguntzen eta arazoak dituzten gazteekin jarduten. «Amore ematea ez da inoiz aukera bat», da leloetako bat. Azpimarratzen duenez, bera da ikusten den aurpegia baina atzetik sekulako taldea dabil lanean.

Gazteekin duen harremanaz, GAUR8ri azaldu dio kezkatzekoa dela duten erreferenteen gabezia. Hala ere, argi dauka gazteak ez direla arazoa, baizik eta guk eraiki dugun mundua. «Gazteekin zaudenean, oinarri onak ematen diezkiezunean eta bidea apur bat zabaltzen diezunean, helduok baino hobeto moldatzen dira, haiekin egotea bizitzaren oparia da, arazoa gu gara eta ematen diegun mundu nahiko toxikoa».

Arazo ugari dagoela uste du, lehiakortasun handitik hasita, sare sozialen erabilera-igaro eta hainbeste informazio eta erabilera duen teknologia heldua ez den per-



tsona baten eskuetan egotea. «Fronte asko daude zabalik».

“Subnormal” komikian kontatzen den istorioa ez da horretan geratuko. Berezik es-kertzen du Jose Luis Cordoba Paninikoak egindako ahalegi-na, «apustu arriskutsua izan zelako». Lanketarekin pozik dago Zubizarreta, ondoan izan dituen profesional biek eraku-tsitako profesionaltasun eta sentiberatasunagatik.

Azpimarratu duenez, gidoi-lariak sekulako lana egin du eta marrazkilariak hitzik ez duten binetetan jakin du ol-darkortasuna islatzen.

Orain, filmaren proiektuan buru-belarri dabil Iñaki Zubi-zarreta. Finantziazioa bilatzen ari dira “Subnormal” titulua edukiko duen film luzerako. Behin baino gehiagotan azal-du duenez, tituluak ez dauka inongo konnotaziorik, «barru-tik apurtu» zutenek erabiltzen zuten iraina da, istorioa bere gordintasun osoarekin aurkez-teko.

Bitartean, gidoian ere ari di-ra lanean eta edukiari buruz, GAUR8ri aurreratu dio peliku-la komikia baino askoz harago joango dela. Haurtzaroko pa-sarteak eta helduaroakoak na-hastuko ditu, ondorioak era-kusteko.

«Badaukagu lehen gidoi bat baina buelta pare bat eman nahi diogu, ez dugulako pro-dukto huts bat nahi, baizik eta komikia bezala hezkuntzaren-tzat eta medikuntzarentzat euskarri bat izan daitekeen tresna garatu nahi dugu», ze-haztu du egitasmo berriaren inguruan. Baina egitasmoak ez dira hor bukatzen, gida di-daktiko baten sorreran ere bu-ru-belarri dabilta, eta Zubiza-rretak argitu duenez, ahalik eta eskuragarrien izatea nahi dute.